

GUGGENHEIM BILBAO

PRENTSA OHARRA

Mind Againsten erritmoek berotuko dute Guggenheim Bilbao Museoko urriaren 16ko Art After Dark saioa

Urriaren 16an Museoko Atrioa girotuko dute Mind Against-ek eta haien musika elektronikoak. Proiektu horrek IDM, *house* eta teknoa ditu ikergai eta saio bakoitzean soinu berritzaileak eskaintzen ditu. Talde horrez gain, Mimoloco eta Cookin Soul & Mc Melodee izango dira Museoa.

Berlinen egoiliar moduan dauden Alessandro Fognini eta Federico Fognini italiarrek **Mind Against** proiektua sortu zuten. Life And Death-en argitaratutako hiru EPek —*Atlant*, *Avalon* eta *Strange Days*— ezagun egin zituzten eta arrakasta handia izan zuten kritikaren artean. 2015ean, Locked Groove produktore belgikarrarekin elkarlanean, EP bat egin zuten Hotflush Recordings-en. “Saillkatzen zaila” den soinu baten klixek hartzen du Mind Against-en. Bertan bat egiten dute 1980ko hamarkadako oihartzun psikodelikoek eta tradizio europarraren *dance* ereserkiek, saio bakoitzean berritzen duten soinu batean. Ezaugarri horrek azken urteetan lan gehien egiten duten produktoreen artean kokatu ditu.

Valentziako **Cookin' Soul** ekoizle/DJ bikotea (Big Size eta Zock) Grammy bat irabazi dute eta mundu osoan 200 album eta *mixtape* baino gehiago ekoitzi dituzte. AEBn arrakasta izan dute eta bertan nabarmendutako Europako lehen *hip hop* produkzio-taldea da. Ia, nazioartean ezagunak diren Nicki Minaj, Mac Miller, Pusha T, The Game, YG, Curren\$y, Redman, Jim Jones eta beste hainbat artistentzako *beatak* sortu dituzte. DJ gisa egiten dituzten saioak estilo asko jorratzen dituztelako nabarmen izan dira: *soul & funk*, *reggae*, *rock*, *hip-hop*, *classics*, *90s* eta, jakina, euren sortutako *remix* lanak.

Museoko Atrioan lehen izango da **Mimoloco**. Honelako saioetan, Mimolocok bere alde sofistikatuenak eta esperimentalenak erakusten ditu bere ohiko eklektizismoa alde batera utzi gabe. Horretarako askotariko soinuak nahasten ditu: *downtempo*, *future bass*, *deep house*, *glitch hop*, *chill trap* eta abar.

Urriaren 16ko gauean, **10:00etatik 01:00era**, Guggenheim Bilbao Museora bertaratzen direnek *Jean Michel Basquiat: Bada garaia* erakusketaz eta Shahzia Sikanderren *Paralajea (Parallax)* bideoinstalazioaz gozatzeko aukera izango dute.

Sarrera (18 urtetik gorakoak): 13 € publiko orokorra eta 9 € Museoaren Lagunak. Ikusle kopuru mugatua. Salgai txarteldegian eta www.guggenheim-bilbao.es/webgunean.

Bilbon, 2015eko urriaren 8an